

BERRI OROKORRAK

2019ko irailaren 27an 3. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Guraso-eskolak.

Aurten ere, udalaren laguntzaz, gurasoentzako euskara ikasteko klaseak martxan jarriko ditugu. Klaseak, Etumeta Euskaltegian izango dira eta bertako AEK-ko irakasleek emango dituzte. Klaseek honelako bereizgarriak izango dituzte:


- **Astean 2 egunekoak izango dira.**
- **Egunean 2 ordukoak (14:30-16:30)**
- **Arratsaldean izango dira.**
- **100 orduko ikastaroa izango da urritik maiatzera.**
- **100 € ordainduko da ikastaroa.**
- **2-16 urteko haurren gurasoentzat**
- **Urriaren 15ean hasiko dira klaseak.**
- **Izena emateko azken eguna, urriaren 4a izango da.**
- **Mailaketa-froga eguna: urriaren 10a, Euskaltegian izango da 14:30etik 16:30era**
- **Klaseen % 80ra etorri zitezen gero, matrikularen %100eko diru-laguntza emango du Udalak, ikasturte amaieran (Beti ere, Udalaren diru-laguntza deialdiaren arabera).**

Izen-emate orria idazkaritzan jaso dezakezue. Bete ondoren, ikastolako Idazkaritzan edo Etumeta-AEK euskaltegian utzi behar duzue.

1.-Artezkari-tza Kontseilua eta Zaintza Batzordea osatzen duten kideak.

2019/20 ikasturtean Udarregi Ikastolako Artezkari-tza Kontseilua eta Zaintza Batzordea nortzuk osatuko duten jakinarazten dizuegu.

Artezkari-tza Kontseiluarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, idatzi artezkari-tza@udarregi.eus helbide elektronikora.



Arantza Kamino
lehendakaria

Denis Elortza
lehendakariordea

M. Camen Saizar
idazkaria

Urko Zurutuza
diruzaina

Ainhoa Azpiroz
ahozkoa

Josune Tapia
ahozkoa



Eider Tapia
ahozkoa

Joxemari Gonzalez
ahozkoa

Jose Ramon Oiarbide
ahozkoa

Nerea Tolosa
gerentea

Beñat Larrañaga
udal-ordezkarria

Mariaje Imaz
Zuzendarria

Artezkaritzea Kontseiluak Kooperatibaren ordezkotza egitea du helburu. Ikastolako gobernu eta gestio organoa delarik (ikus Estatutuak 2004). 9 partaide titularrek osatuta dago Batzar Orokorrean onartu ondoren. AK partzialki berriztatzen da, urtero herena.

Zaintza Batzordearen funtzioa da Batzar Orokorri aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitea, Kooperatibaren urteko kontuak ikuskatzen direnean izan ezik, Kooperatibaren Liburuak ikuskatzea, Ordezkaritzea agirien egokitasuna ikuskatzea eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzea. Batzorde horren kideak hauek dira: Jon Korta, Aitor Pikabea eta Elixabete Udabe.

2.-Jangela-zerbitzuaren inguruko bilera-deialdia.

Jangela-zerbitzuaren eskaintzaz, funtzionamenduaz, antolamenduaz eta menuez hitz egiteko bilera egingo da **astelehenean, irailak 30**, arratsaldeko **17:00etan** ikastolako **jangelan**.

3.-2019/20 ikasturteko Eusko Jaurlaritzako ikasketa-bekak.

2019/2020 ikasturterako beka eskatzeko epea **irailaren 30etik urriaren 29a** bitarte irekita egongo da.

- ❖ **2018/19 ikasturtean beka eskatu zuten familiek** era telematikoa lor dezakete inprimakia osatuta. Datuak baieztatu edo beharrezkoak diren aldaketak egin ostean, sinadura digitalarekin amaitu dezakete eskaera edo agiria inprimatu eta ikastetxera eraman eskaera hezkuntzara bideratzeko. Beti ere ordua eskatu ondoren.
- ❖ **Eskaera berria** egiteko aukera desberdinak daude:
 1. Ikastolan bertan. Horretarako, aurretik **hitzordua eskatu behar da** idazkaritzan.
 2. Era telematikoa. Guraso edo tutoreak <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> helbidean. Inprimakia inprimatu eta sinatu ondoren, idazkaritzara eramango du ikastolak eskaera baliozta dezan.
 3. On-line etxetik. Aurreko aukerako pauso berdina jarraituko dira, baina DNI elektronikoarekin sinatuko da eta zuzenean Hezkuntzan jasoko dute eskaera.

Informazio guztia www.hezkuntza.net helbidean ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagotarako idazkaritzara deitu.

4.-2019/20 ikasturteko Udarregiko beka-sistema.

Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die urtero bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak idazkaritzan eta ikastolako webgunean jaso ahal izango dira.

Helburua:

- Seme-alabak Udarregi Ikastolan matrikulatzen laguntzea.
- Ordaintzeko oinarriko arazoak dituzten ikastolako bazkideei laguntzea.

Diru-laguntza motak:

- Kuota murrizketa.
- Egoera berezietarako, kuoten %100 estalita egongo da.

Beka-eskaera epea:

Urriaren 29a arte.

5.-Kilometroak 2019 eta Nafarroa Oinez 2019, laguntza-eskaera.

- Zarautzen, urriaren 6an, Kilometroak 2019 ospatzeko hilabete eskas falta delarik, jaiaren antolakuntzari aurre egin ahal izateko behar den laguntzaile kopurua osatzeko, zuen laguntza eskatzera gatzoz berriz ere.
- Jakin ezazue, ardura horiek 4 orduko txandak direla eta, beraz, goizean arituz gero, ondoren eguna osoa gelditzen dela jaiaz gozatzeko. Izenak edo jende kopurua emateko sartu kmk19.zarautzkoikastola.eus web-gunean.

- **Urriaren 20an Tuteran, Argia ikastolak antolatuta Nafarroa Oinez egingo da eta zure laguntza behar dugu.**

Egunean lan egiteko gelakideekin, lagunekin, familiarekin apunta zaitezke. Zurekin lortuko dugu!
Lotura honen bitartez txanda batera edo bestera apunta zaitezke:

<https://forms.gle/ZnULsNAQFChAmYlX9>

Zure lagunei horren berri eman, zure inguruko en artean mezua zabaldu.

Argia ikastolak behar zaitu. Izan Argi!

Aldez aurretik eskertuz, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.


OHARRAK ETAPAKA



EZ dago berririk.



EZ dago berririk.



1.-Eskola-kirola.

Astlehenean, irailak 30, eskola kiroleko **ekintza guztiak hasiko dira.**

-LH5 eta LH6:

Talde-kirolak (futbol 8 - eskubaloia) aukeratu dituzten LH 5eko eta LH 6ko neskak kiroldegian hasiko dira eta mutilak Haranen. Gogoratu, astean zehar futbol eta eskubaloia egingo dituztela, baina eskaintza honetan asteburuetan kirol horiez gain beste kirol batzuk ere egingo dituztela eta izen emate orrietan aipatu zela.

-Xakeko egunak:

LH1 eta LH2; asteartetan.

LH3 eta LH4; asteazkenetan.

LH5, LH6 eta DBH; ostegunetan.

Ikasleak 13:30etan DBHko eraikineko sarreran egon beharko dute. Jangelara joaten diren ikasleen bila, xakeko hezitzailea joango da.

-Eskola kiroleko edozein zalantza izanez gero eskolakirola@udarregi.eus helbidera idatzi.

2.-Igeriketa plana.

Gela-buruen bileretan gurasoek proposatutako gai honi heldu eta hausnarketa bat egin ondoren, Udarregi Ikastolak "igeriketa plana" martxan jarri eta aurrera eramatea erabaki zuen.

Aipatu beharra dago, Gipuzkoa mailan, herri askotan eramaten dela aurrera egitasmo hori. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programa baten barruan kokatzen da, hori dela eta, diru-laguntza bideratzen dute programa txertatzen laguntzeko.

"Igeriketa-plana" aurrera eramateko arrazoi en artean, besteak beste, haurraren izan ditzakeen onurak izan ditu kontuan Ikastolak. Honako hauek, adibidez:

-Haurraren autonomia sustatzea (norberaren higie zein materialarekiko antolaketa garatuz).

-Haurrak bere buruarekiko duen ezagutza sakontzea. "Ura" elementuak, haurra bere

egunerokotasunetik kanpo dagoen egoera berri eta ezberdin baten aurrean kokatzen baitu.

-Elkarbizitza lantzeko espazio ezberdin bat eskaintzea (aldageletako bizipenak).

-Herriko haur guztiak igeri egiten jakin dezaten bermatzea.

Hori guztia dela eta, plana urtez urte, **Lehen Hezkuntzako bigarren mailan** txertatzeko erabakia hartu zuen Udarregi Ikastolak.

GURASOENTZAKO ARGIBIDEAK:

Ohar honen bitartez, Igeriketa planaren nondik norakoak zehaztu nahi zaizkizue. Horretarako, datu nagusienak eta funtzionamendu orokorra azalduko dizkizuegu. Aurreko ikasturtean igerilekua itxita egon zenez, ikasturte honetan 2. eta 3.mailan dauden ikasleek hartuko dute parte.

DATUAK:

-Ekintza aurrera eramateko datak (3 aste):

*3.A gela: irailaren 30etik urriaren 18ra (biak barne).

*3.B gela: urriaren 21etik azaroaren 11ra (biak barne).

*3.D gela: azaroaren 12tik abenduaren 2ra (biak barne).

*2A gela: abenduaren 4tik urtarrilaren 13ra (biak barne).

*2B gela: urtarrilaren 14tik otsailaren 3ra (biak barne) +otsailaren 6a.

-Ordutegia:

15:00etatik 16:30era: kiroldegira joan, prestatu, ekintza aurrera eraman eta dutxako tartea barne.

-Beharrezko materiala:

*Motxila

*Toaila

*Bainujantzia

*Txankletak

*Igeriketako txanoa

*Xaboia

*Igeriketako betaurrekoak (aukeran)

FUNTZIONAMENDUA

-Ekintzak iraungo duen hiru asteetan, ikasgelako orduak aldaketa batzuk jasango ditu, ikasgai ezberdinak kaltetuak izan ez daitezten.

-Kiroldegian irakasle baten ardurapean egongo dira eta saioa 2 monitore espezializatuek emango dute.

-Ekintzak iraungo duen hiru asteetan, haurrak kiroldegian jaso beharko dituzue. Etxera bakarrik joateko aukera izango dute, etxera bidaliko dugun oharra sinatuta ekartzen badute.

-Gurasoek, beti ere, aldageletatik kanpo itxaron beharko dute seme-alabak atera arte.



DBH

1.-Guraso bilerak.

Datorren astean, ikasturteko guraso-bilerak izango dira.

MAILA	EGUNA	ORDUA
DBH 1	Urriak 3, osteguna	17:00
DBH 2	Urriak 3, osteguna	17:00
DBH 3	Urriak 1, astearte	17:00
DBH 4	Urriak 1, astearte	17:00

Guraso-bilera guztiak euskaraz egingo dira eta beharrezko itzulpenak bertan eskainiko dira.